


Oporrik ez, sakelakorik gabe, Internetik gabe, mp3-rik gabe

Teknologia berriei esker, oporretan ere esku-eskura eduki ditzakegu aro digitalak eskaintzen dituen erosotasunak



Zenbait jende ezin izaten du moztu Internetera lotzen duen hari, ezta oporretan ere. Itsasoan ere badira uhinak, eta han ere nabigatu daiteke, baina ez, Interneten behar du izan! Jasangaitza egiten zaie astebetetz saretik kanpo egotea, posta elektronikoa begiratu bat eman gabe, solaskideek Facebook-en jarri dituzten argazkiak ikusi gabe, bideo-jokoetan aritu gabe, ordenagailuan edo sakelakoan telesailak ikusi gabe... Urteko egun guztiak hori egiten pasatu, eta a zer lanak orain oporretan, horiek burutik kentzeko. Oporrak gorrotatzera iritsi baino lehen, ordea, badira bestelako irtenbideak, eta bada modua teknologia ere gurekin oporretara eramateko; komeni da, dena den, zenbait aholku kontuan hartzea, tresnak ongi zaindu beharra izaten da eta.

Ez da guztiz arraroa izaten haur eta gazteak bideo-kontsolarekin jolasean ikustea itsasertzean eta igerilekuetan. Udatiarrak ere ibiltzen dira han eta hemen sakelakoarekin edo ordenagailu eramangarriarekin nabigatzen edo hizketan, itsasoko haizeak ematen dien bitartean. Gerta daiteke, ordea, olatu bat lehertzea edo oharkabean deskuidu bat gertatzea eta eskuan di-

KONTUAN HARTZEKO NEURRIAK ETA AHOLKUAK

Tresna informatikoak eta digitalak lehen baino prestatuagoak daude etxetik kanpora atera ahal izateko. Dena den, ez daude behar bezain babestuak nolahi eraman edo garraiatzeko eta mendian edo hondartzan luzaroan erabiltzeko. Horrexegatik, zenbait neurri hartzea komeni da.

- **Babes-zorroak eta zorro isolatzaileak.** Sakelakoentzat, era askotakoak eta prezio ugariak daude. Horiek dira sistema onenak gailu mota horrentzat. Bideo-kontsolak eramateko ere badira kautxuzko zorro bereziak, erorikoen aurkakoak.
- **Bizkar-zorro bigungarriak.** Tresnak eramateko, bigungarri ongi babestuta dagoen bizkar-zorroa behar du, ahal dela neoprenoz estalia; sakela ugari izatea komeni da, eta konpartimendu irazgai-

tuzten gailuak matxuratzea, ur gaziak kalte handia egiten baitie mikrotxipekin eginda dauden tresnei.

Antzeko zerbait gerta daiteke mendian ere. Gaur egun, erraza izaten da mendi buelta bat egitea bizkar-zorroan liburu-irakurgailu elektronikoa bat daramagula, iPhone bat edo antzeko ezaugarriak dituen telefono bat, ordenagailu eramangarri arin bat, edo bideo-kontsola bat. Baina oso adi ibili behar da horiei kolperik ez emateko (erorita edo zerbaitekin gogor igurtzita), apurtu egin litezke eta. Hori dela eta, bigungarri egoki babestuta eraman behar dira tresnak edo bizkar-zorroa bera.

Bidelagun ezinbestekoa: Internet.

Bidaian goazela Internet eskura edukitzeko modurik errazena, telefono adimendunak erabiltzea da ('smartphones' direlakoak), edo 3G txartelak erosi eta ordenagailu eramangarriari USB atakan jartzea (telefonía operadore nagusiek saltzen dituzte halakoak). Interneterako konexioa eskaintzen dute, aski modu errazean, 'tethering' deitzen den prozesu baten bidez. Gailu horiek erabiltzeko, ordea, herri edo hiri handietatik gertu samar egon behar dugu.

Kontuan hartu behar da, dena den, nahiko tarifa garestia izaten dutela konexio-bide horiek, eta datu kopuru mugatu bat jaisteko aukera ematen dutela. Zenbaitetan, gainera, muga hori gaindituz gero, izugarri garesti kobratzen dute kontsumitzen den megabyte bakoitza. Ez da, beraz, erabateko irtenbidea ere, eta badu zer hobetua, eskaintzen duten banda-zabalera eta kobratzen duten prezioa ez datoz-eta bat.

Ordenagailura edo MP3 erreproduktorea zerbait deskargatu nahi izanez gero, etxetik irten aurretik egitea komeni da, eta Interneterako sarbidea oso gauza jakinetarako erabiltzea. Interneteko bideoak ikusteko erabiltzea edo musika streaming bidez entzuteko erabiltzea ez da batere errentagarria. Gainera, landa eremuetan edo gune turistikoetatik urrun dauden lekuetan, oso estaldura kaskarra ematen dute.

Kontuz 'roaming' delakoarekin.

Hotelek edo apartamenduek 'wifi' bidezko konexioa eskaintzen badute, ez da arazorik izaten Internetera sartzeko, batik bat eramangarri ultra-arinekin edo iPad gisako tableta berrieekin. Ostaturako hartuko dugun erabakitzerakoan, garrantzitsua izan daiteke

jakitea ea 'wifi' bidezko konexiorik baden leku horretan.

Espainiatik kanpora ateratzen denarentzat, wifi izaten da alternatiba bideragarri bakarra, zeren gainerako gailuak, 3G txartela eta sakelakoak, alegia, 'roaming' moduan sartzen dira eta askoz garestiagoa izaten da hori, herrialde bateko eta besteko konpainiek ados jarri behar izaten dute-eta sarbidea emateko. Europako Bata-suneko herrialdeek onartu eta sinatu dute roaming bidez hitz egiteko tarifak kontrolatzeko akordioa, baina ez datuak jaisteko tarifei buruzkoa; ondorioz, oso garestia gertatzen da zerbitzu hori erabiltzea.



tzak edukitzea. Kolpeak eta erorikoak saihestez gain, eragotzi egin behar dute barrera ura edo harea sartzeko, biak ere oso kaltegarriak baitira. Ordezko bateriak ere eraman behar izaten dira gailuaren autonomia handitzeko, eta kargagailuak eta hariak ere bai, horiek kargatzeko. Horretarako datoz ongi sakelak eta gisakoak.

- **Kargagailuak.** Tresna bakoitzak bere kargagailua izaten du baterientzat, eta luzaroan egon behar badugu etxetik kanpo, funtsezkoa da horiek hartzea. Telefonoa, kamera, ordenagailua eta bideo-kontsola eraman nahi baditugu, adibidez, lau kargagailu beharko ditugu, beren hari eta guzti. Horiek guztiak poltsa berezi batean jartzea da onena. Bestalde, ibili behar dugun lekuren batean entxuferik izango ez bada, egokia izan liteke eguzki-indarrez dabilen kargagailu bat eramatea. Jaka

modukoak izaten dira, eta kirol denda espezializatuetan saltzen dituzte (hainbat eratako bateriak kargatzeko gaitasuna eduki ohi dute).

- **Segurtasun-kopiak.** Irten aurretik, komeni izaten da segurtasun-kopia egitea ordenagailuaren disko gogorrari, nabigatzailearen historiala garbitzea eta, oporretan gaudenean, modu pribatuan jartzea (nabigatzaile nagusiek eskaintzen dute aukera hori). Era horretan, ordenagailua desagertzen bazaigu, inork ezingo ditu ikusi erabiltzailearen datuak.
- **Tresna matxuratua.** Txipak dituen gailu bat uretara erortzen bada, kalteak sor daitezke zenbait elementutan. Hala ere, saia liteke horiek lehengoratzeko. Tresna desmuntatu egin behar da (ahal dugun gutxia). Ur gazitan erori bada, ur gozotan

sartu behar ditugu desmuntatu dizkiogun osagaiak, eta hamabi orduz hantxe utzi (lau orduz behin ura aldatuko diogu, gatz kentzeko). Ondoren, eguzkitan jarriko ditugu lehertzerako, eta haizeak ere ahalik eta gehien ematea komeni da (egun oso batez utziko ditugu hola). Ile-lehorgailu bat erabiltzea ere irtenbidea ona izan liteke. Denbora hori igaro denean, pieza bakoitza bere lekuan jarri, eta zer gertatzen den ikusiko dugu.

- **Bermeak.** Bidaia hasi aurretik, egiaztatu egin behar da tresnek bermerik baduten edo ez, epe barrenean dauden edo ez, istripu bat gertatzen bada ere.
- **Asegurua kontratatu.** Aseguru teknologiko bat kontratatzea ere ez da burugabea. Gero eta jende gehiagok egiten du (batez ere, tresna garestiak dituztenek).